

GIZARTEA ▶

Oianguko Plan Bereziarekin aurrera jarraituko du Udalak

Ezker Batuak eta Oiangu Parkea Bizirik elkarteak prozesu administratiboa gelditzeko eskatu dute plenoan

MAIDER DEL OLMO

Udalak Oianguko proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa du. Udala parkeko Plan Bereziaren eta Ingurumen Inpaktuaren Azterketaren aurretikoa zain dago. Azterketa Foru Aldundiak du orain. Informazio publikorako eta alegazioetarako epeari dagokionez, Alejandra Iturrioz alkateak ziurtatu duenez ez dute abuztuan irekiko.

Herenegun egindako plenoan Ezker Batua alderdiak mozioa aurkeztu zuen prozesu administratiboa gelditzeko eskatuz. Oiangu Parkea Bizirik Natur Elkartek bat egin zuen eskaerarekin. Udalak, bere aldetik, ez duela prozedura gelditzeko asmorik esan zuen. Bestalde, posta elektronikoz bidalitako alegazioak ez direla onartuko ere azaldu zuten udal

iturriek plenoan, eskaerari erantzunez.

Oiangu Bizirik Natur Elkartek informazioa ukatzea egotzi dio Udalari. Edurne Huesa elkarteak lehendakariaren esanetan, «elkarte bezala ukatu egin zaigu informazioa jasotzeko dugun eskubidea, eta hori ezin da onartu».

Espainiako Gorteek ekainean onartutako Aarhuseko legean oinarrituz –informazio eta partaidetzaren legea eta nazioarteko hitzarmena da– eskaera egin zioten Udalari: Ordiziako herritarren parte-hartze publikorako prozesu bat martxan jarri dezala. Horretarako herri-kontsulta bat egitea eskatu zuten edo eztabaida tailerrak egitea.

Bestalde, parkeko proiektuaren aurkako elkarteak herritarren artean inkesta bat egingo duela aurreratu du, gaiaren in-

ALEJANDRA ITURRIOZ
ALKATEA

«Proiektuak Oianguko parkearen balore soziala handitu egingo du, eta publikoa izaten jarraituko du»

guruan haien iritzia jasotzeko. Alejandra Iturrioz alkatearen ustez Oianguko proiektuak handitu egingo du parkearen balore soziala, eta publikoa izaten segiko du.

Bestelako ikuspegia azaldu zuten egitasmoaren aurkakoek, eta parkearen hainbat eremu pribatizatu egingo direla adierazi zuten, egitasmoa lehenbailehen bertan behera gelditzeko eskatuz.

Etkez etxeko laguntza

Plenoan eztabaida piztu zuen beste gai bat etkez etxeko laguntza zerbitzua izan zen. Udalak behin-behinean onartu zuen Osoko Bilkuran diru laguntzen programaren araudia.

EDURNE HUESA
OIANGU PARKEA BIZIRIK ELKARTEA

«Elkarte bezala informazioa jasotzeko dugun eskubidea ukatu egin zaigu, eta hori ezin da onartu»

PSE-EE alderdia aurka agertu zen. Iñaki Dubreuil sozialistak azaldu zuenez «pribatizatu» egingo da zerbitzua. Lege-haustea egon dela ere uste du. PSE-EE alderdiak zalantzan jarri zuen benetan eraginkorra den bere kabuz baliatzen ez diren pretsonek gaur egun Udaleko Ongizate arlotik jasotzen duten laguntza.

Joxemi Santa Maria Ongizateko ordezkariak erantzun zionez gaur egun ematen den zerbitzua «ona» da, erabiltzaileek eurek hala esanda. Hala ere, Udaletik sondeo bat egiteko asmoa agertu dute erabiltzaileen artean. Iñaki Durbreuilen hitzetan, «kontua ez da erabiltzaileak gustura edukitzea, baizik legea betetzea».

FESTAK ▶

Koadrila eguna dute gaur umeez, jaien hasieran

Eguerdian botako dute suziria, eta egun osoan ibiliko dira blusak soinean

M. DEL OLMO

Umeek koadrila eguna ospatuko dute gaur. Udaletxean eguerdiko hamabietan aginpidea emango zaie alkate jaun-andre txikiak, eta era horretara emango diete hasiera festei, suziriaren jaurtiketarekin eta ondorengo kalejirarekin.

Eguerdian plazan bazkaria egingo dute umeez denek elkarrekin, eta ondoren olinpiadak izango dituzte. Arratsaldean zehar hainbat ekitaldi izango da, eta gauean moztorrot gaua ospatuko dute.

Bihar, berriz, goiz eresiarren ondoren haurrek ohiko aureskua egingo dute plazan, eta iluntzean izango da danborrada. Zotzietan aterako da Bustuntzatik, plazan bukatzeko. Ondoren kalejira izango da.

MUSIKA ▶

Bad Haggis estatubatuar musika talde ezagunak txosnetan joko du bihar

Musika zelta jotzen dute, funky, rock eta jazz estiloekin nahastuta, eta bi disko dituzte

A. APALATEGI/M. DEL OLMO

Amerikako Estatu Batuetako Bad Haggis taldeak Ordiziako txosnetan joko du bihar. Taldeak musika zelta egiten du, funky, rock eta jazz estiloekin nahastuta. Eric Rigler gaita jotzailearekin batera joko dute taldekoek.

Bad Haggis-ek izen handia hartu du azken urteetan, *Titanic*, *Braveheart*, *Million Dollar Baby* edota *Gladiator* filmeen soinu bandeia esker, batez ere. Mike Oldfield, Ben Harper, Phil Collins edota Tracy Chapman artisten ondoan ere aritu izan dira.

Gaueko 22:30ean hasiko da kontzertua Kokein taldearekin.

Ondoren joko dute Bad Haggis-ekoek. Kontzertua ixteko, Deskriadós eta Izeba Pilarren Hilobak taldeek joko dute.

AEBetako taldea bere bigarren diskoa aurkezteko bira egiten ari da egunotan Espainiako estatuan barrena. Kritika estatubatuarren arabera, Grammy sarietara izendatuak izateko aukera asko dituzte, World Music atalean.

Berriz ere etxerako bidea hartu aurretik –Los Angeleskoak dira– Ordizian izango dira bihar.

Txosna Batzordekoak oso gustura agertu dira azken orduan asistentzia baieztatu duen Bad Haggis taldearen etorrerarekin. Karteletan ez da musika



Bad Haggis musika talde estatubatuarreko kideek txosnetan kontzertua emango dute bihar.

talde ezaguna agertzen, azken unean, atzo, baieztatu baitzuten etorriko zirela.

Bestalde, egunotan kontzertu gehiago ere izango dira

Txosnen Batzordeak antolatuta, bai txosnetan eta baita gaztetxean ere. Hala, gaur Marian y Pi Dljaren saioa izango da txosnetan. Gaztetxean, berriz, hiru

kontzertu eskainiko dituzte, 22:00etatik aurrera talde hauek: Heel Beer Boys goierri-tarrak, Dune Buggy eta Against The Rapist.